



Haizemari

Haizemari izeneko sorgina izar baten gainean bizi zen. Lo zegoela, itsasora erori zen. Eta han, gizon bat aurkitu zuen bere txalupan negarrez. Ardi-larru bat zeukan bizkarrean eta beste bat gerritik behera. Arrainak ere ardi-larruetan bildurik zeramatzan. Kanabera luze bat atxikitzen zuen eskuetan. Txoan zen gizon haren izena.

Haizemarik galdetu zion :

– Zer gertatzen zaizu, gizon ? Zergatik zaude negarrez ?

Malkoak lehortu eta honela erantzun zion Txoanek :

– Leizezulo batean semetxoak dauzkat gosez.

10

Itsaso zabalean bete dut txalupa arrainez.

Hautsi egin zaizkit gauean

eta orain arraunik ez, arraunik ez !

Ezin nire semetxoengana joan,

horregatik nago negarrez.

15

zeramatzan : eraman aditza
forma trinkoan, iraganean.
Eramaiten zituen.

malkoak lehortu : negar xortak xukatu.

leizezulo : harpe.



Sorgin hura guziz ona zen eta gizon haren laguntzea pentsatu zuen.

– Ni Haizemari naiz, haizea sortzen duen sorgina, erran zion, eta zure semetxoengana joan nahi baduzu, egin nik errana. Lagundu nahi zaitut.

Txoanek erantzun zion orduan bozkarioz:

Haizemari sorgintxo

sorginmari haizetxo,

mila esker laguntxo !

Zuk errana eginen dut

xintxi-xintxo.

– Oso ongi, erran zion Haizemarik. Has lanean. Hauts kana bera hori erdi-erditik. Zabal bi ardi-larru. Lot ardi-larruen zango-besoak kanaberaren bi puskei...

Txoanek, Haizemarik erran guzia egin zuen. [...]

30

Orduan, putz eginez, sekulako haize buhakoa sortu zuen sortiginak. Txalupa mugitzen hasi zen. Gero eta azkarrago zihoan.

Itsasertzera heldu zirenean, harkaitz bati lotu zion txalupa Txoanek. Arrainak bizkarrean hartu eta bere harpera joan zen; Haizemari ere, haren gibeletik.

35

Txoanen lau semetxoek nahiko arrain jan zuten egun hartan. Geroztik, denak elkarrekin bizi izan ziren zoriontsu eta bakean.

putz eginez : ufaiaz.

itsasertzera : itsas bazterreara.

Bi mila urte bada hau gertatu zela. Txoan eta semeak aspaldi hil ziren baina Haizemari harpe hartan bizi omen da oraindik eta berak sortzen ditu mundu honetako haize buhako guziak.

40

Josean ORMAZABAL,
IKASek moldatua.

❶ ULERMEN GALDEAK

- Zergatik negar egiten du Txoan arrantzaleak ?
- Zergatik portura ezin da sartu ?
- Zer eginen du Haizemarik Txoanen laguntzeko ?
- Nola amaitzen da ipuin hau ?
- Zergatik Txoan negarrez ari da ?
 - Haizemari ikusi duelako.
 - Ez duelako arrainik atzeman.
 - Gaua heldu delako.
 - Arraunak hautsi eta txalupa ezin duelako portura eraman.
 - Arrainik aski ez duelako haurren asetzeko.

2 HIZTEGIA

► Hona "haize" erroarekin osatu hitz zenbait. Bakoitzari bere erranahi zuzena emaiozu.

▪ Eguzki haizea

Haizearen indarra erabiltz. Inpuren egiteko erria

▪ Haizegailua

Ekialdeak heldu den haizea

▪ Haizebea
(zubereraz : aizolbea)

Aire freskoaren egiteko erabiltzen den tresna

▪ Haize errota

Haizeak begiratua den tokia

► Hona *arraun* hitzaren hiru definizio. Zein da zuzena ?

Itsasoan eta urean bizi den animalia.

Txaluparen ibilartzeko eskuz erabiltzen den zurezko haga luze buru zabala.

Moko luze eta zango luzeak dituen ur bazterretako hegaztia.

3 ADITZA

► Aditz laguntzaileak orainaldian eman itzazu.

Itsasertzera heldu zirenean, harkaitz bati lotu zion txalupa Txoanek. Arrainak bizkarrean hartu eta bere harpera joan zen ; Haizemari ere, haren gibeletik. Txoanen lau semetxoek nahiko arrain jan zuten egun hartan.

4 BERRIZ IRAKUR

► Pasarte honetako hutsuneak hitz egokiz bete itzazu.

Itsasertzera heldu zirenean, harkaitz bati lotu zion Txoanek. Arrainak bizkarrean hartu eta bere joan zen ; Haizemari ere, haren gibeletik. Txoanen lau semetxoek nahiko jan zuten egun hartan.

arrain

harpera

txalupa

► Haizemari izeneko sorgina izar baten gainean bizi zela dio ipuinak. Marrazki baten bidez irudika ezazu.